

Euskaltzaindiaren Mintzola deialdia (2025-2026)

euskarazko hizkerari eta adierazkortasunari buruzko GRALak eta MALak saritzeko

DEIALDIAREN XEDEA

Euskaltzaindiak, Mintzola egitasmoaren bidez eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, euskarazko hizkerari eta adierazkortasunari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea du.

Norabide horretan, erabaki du eguneroko hizkeraren galdegaiak erdigunean jartzea, ahozkortasunari helduta, hainbat mailatako ikerketa-jardunak sortuz. Batetik, **abiapuntuko ikerketak**: objektua bera kokatzea, eguneroko hizkeraren ezaugarriak aletzea, euskal komunitateak arlo horretan duen egoera diagnostikatzea. Beste batzuk, aldiz, **ikerketa aplikatuagoak**: eguneroko hizkeraren hobekuntzan eragiteko tresnak hezkuntzan, hedabideetan eta bestelako bideetan.

Ikertzaile gaztea edo hasiberria doktoretza-tesiraino eramango duen ibilbidean, aurreko erabakiak eta urratsak ere garrantzitsuak dira, eta hori aitortzea, eta unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, ondorengo zazpi eremuak oinarrian direla, **euskaraz egiten den ahozko jarduna** ikergai gisa aukeratu izana baloratzea da deialdi honen helburua. Ikergaiak:

1. Eguneroko hizkera informala ezaugarriak eta beronen egoera euskal komunitatean. Oinarriak, corpusa eta diagnostikoa.
2. Euskalkiak eta hizkera estandarra ahozko hizkeraren funtzioetan: praktiken azterketa eta jarraibide batzuk sortzeko oinarriak.
3. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun-baliabideak hezkuntza arautuan lantzeko bideak eta formulak.
4. Aisialdi antolatuan eta hezkuntza ez-arautuan adierazkortasun-baliabideak lantzeko bideak eta formulak.
5. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun-baliabideak hedabideetatik eta ingurune digitaletik sustatzeko bideak eta formulak.
6. Eguneroko hizkerarako adierazkortasun-baliabideak lantzeko bestelako bideak.
7. Hitanoa lantzeko eta hedatzeko bideak eta formulak.

Zazpi eremu horiek lehentasunezko zat defintitu ditu Euskaltzaindiak, baina, oro har, euskaraz egiten diren ahozko jardunari buruzko ikerketa-lanen egitasmoak ere saritu ditzake.

Lehenengo urratsen garrantziaz oharturik, hain justu, gradu- eta master-amaierako lanen kalitatea ebaluatu eta sarituko da deialdi honetan, sinesten dugulako unibertsitate-irakasle batek bermaturiko lanak kalitate ona duenean ikertzaile hasiberriaren oinarriak sendoak izango direla.

Deialdi honetan, gradu- eta master-amaierako lanen egitasmoak onartuko dira, geroko tesiak bultzatzeko helburuz. Nolanahi ere, unibertsitate-irakasle doktore batek bermatu behar du lana.

PROZEDURA

- 2026an, **1.500 euro gordineko hamar dirulaguntza** esleituko dira.
- Deialdira aurkeztu daitezkeen egitasmoak 2025-2026 ikasturtean defendatuko diren lanenak izango dira.
- Aritu edota doktorez osaturiko hautaketa-batzordeak balioetsiko ditu egitasmoak. Baremoak zehaztu ondoren, puntu gehien duenetik gutxienekora doan zerrenda egingo du. Horietan puntu gehien lortzen dituenak irabaziko du saria.
- Saria eman gabe gera daiteke, egitasmorik aurkeztu ez delako edota aurkeztu direnek saririk merezi ez dutela erabakitzen bada.
- Euskaltzaindiak eskubidea izango du deialdi honetara aurkeztutako lanak argitaratzeko, idazlanaren pasarte bakarra izan edo idazlan osoa izan.
- Deialdi honetara aurkeztutako lanak Azkue Biblioteka eta Artxiboan gordeko dira. Aldiz, lanak argitaratu gabeak diren artean, egilearen baimena beharko da haiek kontsultatu ahal izateko.
- Egitasmo sarituaren egileak konpromisoa hartuko du lanari buruzko artikuluko bat (gutxienez 30.000 eta gehienez 60.000 karaktere) Euskaltzaindiaren *Euskera ikerketa aldizkarian* idazteko.
- Dirulaguntza jasotzeak ez du inolako kontratu edo estatutupeko harremanik sortuko Euskaltzaindiarekin.
- Aski da deialdira gradu- edo master-amaierako lan baten egitasmoa aurkeztea lanaren egileak deialdiaren prozedurari dagozkion puntu guztiak onartzen dituela baieztatzeke.
- Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa– betez, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen (‘‘DBEO’’) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa (‘‘DPBEDBLO’’) aipamen berezia eginez, deialdi honetara aurkeztu diren pertsonen datuak Euskaltzaindiaren tratamendu-sistemetan jasoko dira, bera baita tratamenduaren erantzulea.

ESKAERAK

- Eskerak deialdi honekin batera doan eskaera-inprimakia betez aurkeztuko dira.
- Hirutik bost orrialdera bitarteko txostenak aurkeztuko dira gradu- eta master-amaierako lanen egitasmoak azaltzeko. Edukia haxe izango da:
 - Sarrera, justifikazioa edo gaiaren interesa.
 - Hurbilpen teoriko laburra.
 - Helburuak.
 - Metodologia.
 - Bibliografia laburra.
- Lanen egitasmoak PDF formatuan eta e-postaz bidali behar dira ondoko helbide elektronikora: mintzola@euskaltzaindia.eus.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Lanen egitasmoak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:

- GRALaren/MALaren kalitatea: ikerketa-gaia eta helburuak ondo zehaztuta egotea. Metodologia egokia izatea eta ondo garatuta egotea. Egitasmoa argi eta ondo idatzita eta egituratuta egotea.
- GRALaren/MALaren garrantzia eta originaltasuna: lanak jakintzari egindako ekarpena, maila teorikoan zein metodologikoan egindako berrikuntzak. Ikuspegi interesgarria eskaintzea eta etorkizunerako lan-ildoak irudikatzea.
- Euskarazko lanak lehenetsiko dira.

DATAK ETA INFORMAZIOA

- Eskerak eta lanen egitasmoak aurkezteko epea: **2026ko apirilaren 30era arte**.
- Hautatuen izenak eta ordezkoen zerrenda argitaratzeko eguna: 2026ko maiatzaren 29a, beranduenez.
- Egitasmoaren araberrako ikerketa-lana eginda entregatzeko mugaeguna: **2026ko irailaren 30a**.
- Ordainketak: sarituen zerrendak argitaratutakoan, eta betiere, 2026ko ekainaren 15a baino lehen.

- Euskaltzaindiaren atarian (www.euskaltzaindia.eus/mintzola) argitaratuko da deialdiari buruzko informazioa zein deialdiaren urratsen berri.
- Deialdiaren inguruko alderdiei buruzko galderak honako helbide elektroniko honetara bidali behar dira: mintzola@euskaltzaindia.eus.